

PRIBATUTASUN-POLITIKA

BEASAINGO ARRASTAKA MENDI KIROL TALDEA (G20956157), Antzizar Kiroldegia, Igartza Oleta kalea 3; 20200 Beasain (Gipuzkoa) helbidea duena, PRIBAwesite <https://www.ehunmilak.com> webgunearen jabea da, eta webgune horren jabea den aldetik, hau jakinarazten dizu: eskainitako zerbitzuak erabili ahal izateko, zenbait datu pertsonal ematea beharrezkoa da. **BEASAINGO ARRASTAKA MENDI KIROL TALDEAK**, webgune honetako erabiltzaileek borondatez emandako datu pertsonalen konfidentziasunari eta tratamenduari eusteko, indarreko legedian ezarritakoarekin bat jotzeko du, zehazki, Europako Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko Lege Organikoan eta Informazio Gizartearen eta Merkataritza Elektronikoaren Zerbitzuei buruzko legean ezarritakoarekin bat.

Zure datu pertsonalen tratamendua

Jakinarazten dizugu **BEASAINGO ARRASTAKA MENDI KIROL TALDEAK** tratatuko dituela harremanetarako bitartekoen bidez nahiz <https://www.ehunmilak.com/> webguneko datu-bilketarako formularioen bidez lortutako datu pertsonalak, xede hauekin: harremanetarako eskaera kudeatzea; hala badagokio, kirol-ekitaldian zure izen-ematea gauzatzea; kirol-ekitaldian parte hartzeko derrigorrezko mediku-azterketa eta gaitasun-txostena kudeatzea; eta zurekin harreman profesionali eta merkataritza-harremani eusteko. Halaber, datu-tratamendu horren xedea izango da zurekin informazio- eta sustapen-loturari eustea, zenbait baliabideren bidez (telefonoa, SMS, posta elektronikoa), jakinarazpenak jaso ditzazun zure interesekoak izan daitezkeen eskaintzei, produktuei eta zerbitzuei buruz, baldin eta aurretik baimena eman badiguzu. Merkataritza-jakinarazpen horiek jasotzearen kontra egoteko askatasuna duzu, erakundearekin izan dezakezun beste edozein kontratu- edo merkataritza-harreman edo harreman profesional baldintzatu gabe. Era berean, emandako baimena edozein unetan indargabe dezakezu.

Ez zaizkie hirugarrengo pertsonari emango zure datu pertsonalak, legeak eskatzen duenean izan ezik. Hirugarrengoei laga behar bazaizkie, **BEASAINGO ARRASTAKA MENDI KIROL TALDEAK** interesdunaren baimena eskatuko du aurretik xede horretarako, eta datuak nori lagako zaizkion eta zertarako adieraziko dio.

Zure datuen prozesamendua legezkotzat jotzeko oinarria da zuk baimena eman diguzula, ezarritako baliabideen bidez erakundearekin borondatez harremanetan jartzean eta/edo datu pertsonalekin dagokion formularioa borondatez betetzean eta Pribatutasun-politika hau onartzean eta, hala badagokio, merkataritza-jakinarazpenak jasotzeko onespren-gelaxka markatzean. Kirol-ekitaldian izena emateko xedeaz zure datuen prozesamendua legezkotzat jotzeko oinarria da alderdien artean ezarritako kontratu-harremana.

BEASAINGO ARRASTAKA MENDI KIROL TALDEAK gordeko ditu zure datuak zure eskaera kudeatzen den bitartean, legeak ezarritako izen-emate epeetan eta datu-prozesatzeak eragin ditzakeen ekintzak artatzeko; bai eta zuk zure baimena indargabetzen duzun arte edo, zure interesekoak izan daitezkeen merkataritza-jakinarazpenei dagokienez, datu-prozesatzearen aurka egon arte.

BEASAINGO ARRASTAKA MENDI KIROL TALDEAK jakinarazten dizu ez zaudela zure datu pertsonalak ematera behartuta, inolaz ere, eta egokiak eta zorrozki beharrezkoak direla, datu horiek biltzeko xedea betetzeko. Hala ere, ezinbestekoak dira eskainitako zerbitzuak eman ahal izateko.

BEASAINGO ARRASTAKA MENDI KIROL TALDEArekin duzun **kontratu- edo merkataritza-harremanean edo harreman profesionalen** eman diezazkigukezun datu pertsonalak harreman horiei eusteko prozesatuko ditu kirol taldeak, bai eta zure interesekoak izan daitezkeen merkataritza-jakinazpenak bidaltzeko ere, zentzu horretan zure baimena eman badiguzu. Jakinarazpen horiek jasotzearen aurka egoteko askatasuna duzu, gure arteko kontratu- eta merkataritza-harremanak eta harreman profesionalak baldintzatu gabe. Era berean, emandako baimena edozein unetan indargabe dezakezu. Harreman profesionalari eusteko, datuak banku-erakundeei eta erakunde eta administrazio publikoei laga dakizkieke, beharrezkoak baitira kontratatutako zerbitzua bete ahal izateko. Datuen prozesamendua beharrezkoa da kontratua gauzatzeko eta/edo kontratu- edo merkataritza-harremanari edo harreman profesionalari eusteko. Era berean, harreman horiei eutsi bitartean zure datuak gordeko ditugula jakinarazten dizugu, bai eta aplikagarria den legediak adierazitako epeetan eta izan daitezkeen erreklamazioak artatzeko ezarri diren epeetan.

Interesdunaren datuen babeserako eskubideak

Indarreko legedian xedatutakoaren xedeetarako, datu pertsonaletan sartzeko, horiek zuzentzeko, ezerezteko, horien aurka jartzeko eta banakako erabaki automatizatuen, eramangarritasunaren eta zure datuen prozesatzearen mugaren xede ez izateko eskubideak dituzu. Eskubide horiek egikari ditzakezu **BEASAINGO ARRASTAKA MENDI KIROL TALDEKO** Datuen Babeserako Arduradunarekin idatziz harremanetan jarriz Antzizar Kiroldegia, Igartza Oleta kalea 3, 20200 Beasain (Gipuzkoa) helbidera zuzenduz edo info@ehunmilak.com posta elektronikora zuzenduz. Eskaerarekin batera NANaren kopia igorri beharko duzu, bere nortasuna behar bezala egiaztatuz. Datuen Babeserako Espainiako Agentziak erreklamazio bat aurkezteko eskubidea duzu, zure eskubideak urratu direla iritzi baduzu.

Datuen eguneratzea

Zure datu pertsonalak eguneratuta izateko garrantzitsua da datuen aldaketen berri ematea. Bestela, ezin dugu datu horien egiazkotasunaren erantzule izan. Era berean, egiaztatzen diguzu zuk emandako datu guztiak egiazkoak eta egokiak direla eta indarrean daudela, eskatu dizkizugun xederako, eta zuk zeuk eman dizkiguzula.

Datuen konfidentziasunaren eta segurtasunaren bermea

BEASAINGO ARRASTAKA MENDI KIROL TALDEAK, gugan izandako konfiantzarekin bat etortzeko eta zure datu pertsonalek behar duten babesaren eta konfidentziasunaren esparruak zenbaterainoko garrantzia duen kontuan izanda, jakinarazten dizu beharrezko neurri teknikoak eta antolakuntza-neurriak hartu dituela, zure prozesatze-sistemen eta –zerbitzuen konfidentziasuna, erabilgarritasuna, osotasuna eta erresilientzia bermatzeko. Hala ere, erabiltzaileak jakin behar du Interneten segurtasun-neurriak ez direla erasoezinak.

Pribatutasun-politika hau 2019ko azaroan eguneratu zen. **BEASAINGO ARRASTAKA MENDI KIROL TALDEAK** datuak babesteko politika aldatzeko eskubidea du, baldin eta indarreko legedia edo jurisprudentziako doktrina aldatzen badira edo enpresa-irizpide propioak direla eta. Politika hau aldatuko balitz, testu berria helbide berean argitaratuko da.